

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

221. zenbakia**Data 2012-11-20****12 orria**

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-OGASUNA ETA FINANTZA**1020/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 15ekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazteko erabili behar den 842 eredia onartzen duena.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1020/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 15ekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazteko erabili behar den 842 eredia onartzen duena.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak, udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituenak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testuategina aldatu zuen, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutakoa hain zuzen.

Besteak beste, testuateginaren 5. artikuluko 1. apartatuaren c) letran araututako salbuespena aldatu zuen, eta horren ondorioz, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa duten entitateak daude orain salbuetsita.

Aldaketa horren ondorioz, beharrezko gertatzen da egungo 842 aitorten eredia aldatzea eta eredu berria onartzea.

Alde horretatik, azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, 3.2 artikuluan dio zerga hori aitortzeko ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru aginduaren bitartez onartu behar direla.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 842 eredia onartzea.

Onarturik geratzen da negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazteko erabiliko den 842 eredia, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateratuko 5.1.c) artikuluan jasotzen den salbuespena aplikatzeko bete beharrekoa dena.

Bi ale ditu ereduak, Administrazioaren alea eta interesdunarena.

2. artikulua. 842 eredia aurkeztera behartuak.

Bat. 842 eredia aurkeztera behartuta daude Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errenta Zergaren zergadunak izanik, azken zerga horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoan aitortzen ez badituzte.

Bi. Sozietate zibilen kasuan edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen entitateak direnean, 842 eredia aurkezteko obligazioa sozietate zibiletako eta entitate horietako bazkide, oinordeko, komunero eta partaideek izango dute.

Dena den, sozietate zibilek eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluko entitateek ez dute 842 eredia aurkezteko obligaziorik izango euren negozio-zifraren zenbateko garbia Gipuzkoan aurkeztutako beste aitorten batean adierazi dutenean.

Hiru. Merkataritza Kodearen 42. artikuluari jarraiki eratutako sozietate taldeen kasuan, entitate nagusiek izango dute negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazteko obligazioa, baina 842 eredua betetzean taldeko entitate guztien identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharko dute.

3. artikulua. Aurkezpen moduak.

Bat. Bi modutan aurkez daiteke 842 eredua: Bitarteko elektronikoak erabiliz, «PDF» betegarri baten bitartez, edo paperezko euskarrian.

Bi. Azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 1. artikuluan aipatzen dituen subjektu pasiboek, nahitaez, bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dute eredua. Artikulu horretan ezarritako eran frogatu behar dute beren identitatea, eta foru agindu horren 3. artikuluan aurreikusita dagoen aurkezpen prozedurari jarraitu.

Hiru. Eredua paperezko euskarrian aurkeztu nahi bada, inprimakia jaits daiteke Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunetik edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik, edo, bestela, eskura daiteke estanko baimenduetan erosita.

4. artikulua. Aurkezteko epea.

Komunikazioak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ondorioak izan behar dituen ekitaldiko urtarilaren 1etik otsailaren 14ra bitartean, biak barne, aurkeztu behar da 842 eredua.

5. artikulua. Eredua paperezko euskarrian aurkezteko tokia.

842 eredua Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Atalean -Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan- edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan aurkez daiteke.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen da 533/2003 Foru agindua, maiatzaren 19koa, eragiketa bolumenaren zenbatekoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan jakinarazteko 842 eredua onartzen duena.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2012ko azaroaren 15a.—Helena Franco Ibarzabal, Departamentuko foru diputatua.

(9355) (10789)

